

## EITBko agintariek HUHEZI fakultatea bisitatu dute

2007/02/16

Otsailaren 8an Andoni Ortuzar EITBko zuzendari nagusia eta Bingen Zupiria EITBko zuzendaria Eskoriatzan izan ziren, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea bisitatzeko. Alboan izan zituzten Iosu Zabala, MUKo errektorea, eta Inaxio Oliveri, lehengo errektorea; baita HUHEZIKo dekanoa den Nekane Arratibel ere.



HUHEZIn batez ere komunikazioaz hitz egin zuten unibertsitateko arduradunekin. Izan ere, Aitor Zuberogoitia **Ikus-entzunezko Komunikazioa** karrerako zuzendariak azaldu zien zertan den ikasketa plana ikasketa horietan. Halaber, azaldu zitzaizkien fakultateak zelan antolatzen dituen ikasleen **praktikak** eta **karrera amaierako proiektuak**. Joan aurretik, bisitariek multimedia gela bisitatu zuten.

**Pozik** joan ziren EITBko arduradunak, eskertu baitzuten MUK karrera diseinatu aurretik euren iritzia galdetu izana eta ados agertu baitziren karreraren planteamenduekin.